



ADALIMUMAB (Humira®)

40 mg-ko xiringa

ZERTARAKO DA?

Gaixotasun inflamatorio autoinmune batzuek (psoriasis, artritis psoriatikoa, hesteetako gaixotasun inflamatorioa) eragiten duten inflamazioa edo mina gutxitzen duen agente biologiko bat da.

NOLA GORDE?

- HOZKAILUAN (2 °C eta 8 °C artean), kaxa barruan. Ez izoztu.
- Deskuiduan sendagaia hozkailu kanpoan geratu edo izoztuko balitz, ez bota; galdetu botikariari zer egin.

NOLA HARTU?

Adalimumab larruazalpean ematen da. Hainbat dositan eman daiteke tratatutako patologiaren arabera, baina bi astean behin 40 mg hartzea (xiringa bat) da ohiko *mantentze-dosia*.

Aukeratu asteko egun bat eta hartu sendagaia beti egun horretan eta ordu berean, adibidez astelehenetan (astelehen batean bai eta hurrengoan ez).

ETA DOSI BAT HARTZEA AHAZTEN BAZAIT?

- Dosi bat hartzea ahazten bazaizu, gogoratu bezain pronto hartu behar duzu, non eta hurrengo dosia hartzeko garaia ez den.
- Hurrengo dosia hasieran zegokion egunean hartu behar da.

IZAN DITZAKEEN KONTRAKO ONDORIOAK

- Injekzioa jartzen den zonan: azala gorritzea, hazkura edo mina.
- Buruko mina, ikusmen bikoitza, sorgortzea edo inurridura.
- Urdail-hesteetan: goragalea, gorakoa edo abdomeneko mina.
- Bihotzean: hipertentsio arteriala, takikardia, bihotz-gutxiegitasunak okerrera egitea.
- Erreakzio alergikoak eragin litzake, oso gutxitan gertatzen bada ere.

ARRETA BEREZIA IZAN



Sendagaia hartzea dagokizun egunean infekzio aktibo bat baduzu, galdetu medikuari sendagaia har dezakezun.



Ez hartu beste sendagairik medikuari edo botikariari galdetu gabe.



Ez erabili haurdunaldian eta edoskitzaroan.

Berrikuspen-data: 2017ko abuztuan
HI-FARMAZIA-03

Informazio gehiago nahi izanez gero, lasai galdetu zutaz arduratzen diren profesionali.

